# Irakaskuntzari dagokion Biltzar nagusia

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

2014ko irailaren 19an

# 1. atala: euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapen kantitatiboa

- 2005eko abenduan onartua

- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapenaren epe luzeko programazioa finkatzen du

- Eskaintza politikaren logika batean kokatzen da, 3 printzipio nagusi errespetatuz :

  - Lurralde estaltzearen koherentzia segurtatu (eskaintza lurralde osoan eta 3 sareetan)
  - Eskola mailen arteko jarraipena segurtatu, ama-eskolatik terminala arte, eskualde guzietan
  - Familien hautu askea zaindu

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena lehen mailako irakaskuntza publikoan

**Irakaskuntza publikoko 1. mailako eskola elebidun eta elebakarren arteko banaketaren bilkaera**




- 32 sail elebidun ireki dira irakaskuntza publikoan :
  - 26 gune berrietan
  - 6 lehen mailan jarraipena segurtatzeko
- Irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten eskolen proportzioa, %34etik %52ra igo da

# Irakaskuntza publikoko 1. mailako eskolen lurralde estaldura 2014an



# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak



# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Baiona




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 299 |
| Ikasle elebakarrak | 2176 |
| Ikasle elebidunen %a | %12,08 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %64,24 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Gune bat ibaiaren ezkerreko bazterrean<br>Gune bat ibaiaren eskuineko bazterrean |
| Ondoko urteetan | Basusarri (199 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Angelu




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 270 |
| Ikasle elebakarrak | 1792 |
| Ikasle elebidunen %a | %13,09 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %58,20 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Finkatzekoa den gunea |

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak




## Biarritz

| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 163 |
| Ikasle elebakarrak | 1105 |
| Ikasle elebidunen %a | %12,85 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %52,84 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Finkatu beharreko gunea<br>Victor Duruy (289 ikasle) edo<br>Jules Ferry/Sévigné (208 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Bokaleko eremua




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 0 |
| Ikasle elebakarrak | 532 |
| Ikasle elebidunen %a | %0 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %100 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Finkatu beharreko gune bat edo gehiago |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Hiriburu eta Kanboko eremuak




| | Hiriburu | Kanbo |
|---|---|---|
| Ikasle elebidunak | 272 | 541 |
| Ikasle elebakarrak | 887 | 655 |
| Ikasle elebidunen %a | %23,47 | %45,23 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %26,14 | %28,18 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Uztaritze: Idekia (153 ikasle)<br>Uztaritze: Heraitze (97 ikasle)<br>Zuraide (35 ikasle) |
| Ondoko urteetan | Hiriburu: Ourouspoure (202 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Donibane Lohizuneko eremua - Ravel




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 277 |
| Ikasle elebakarrak | 693 |
| Ikasle elebidunen %a | %28,56 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %47,32 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Hiri Barneko eskola (236 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Bidaxuneko eremua

| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 0 |
| Ikasle elebakarrak | 502 |
| Ikasle elebidunen %a | %0 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %100 |




| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Bardoze (112 ikasle) |
| Ondoko urteetan | Bidaxune (122 ikasle)<br>Ahurti (239 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Donapaleuko eremua




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 246 |
| Ikasle elebakarrak | 558 |
| Ikasle elebidunen %a | %30,60 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %47,76 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Larzabale, Jutxi, Bunuze eta Donaixtiko multzoa (72 ikasle) |
| Ondoko urteetan | Armendaritze/Mehaine HEEa (69 ikasle)<br>Arberatze/Arboti/Etxarri HEEa (59 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

## Mauleko eremua




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 243 |
| Ikasle elebakarrak | 334 |
| Ikasle elebidunen %a | %42,11 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %41,25 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Ezpeize/Sarrikotapea HEEa (46 ikasle) |
| Ondoko urteetan | Bildoze/Onizapea HEEa (67 ikasle) Garindaine (38 ikasle) |

## Eskaintza azkartu/optimizatu behar duten eremuak

# Atharratzeko eremua




| | |
|---|---|
| Ikasle elebidunak | 37 |
| Ikasle elebakarrak | 88 |
| Ikasle elebidunen %a | %29,60 |
| Beren eskolan eskaintzarik ez duten ikasleen %a | %58,40 |

| Egingarritasun inkesten proposamena | |
|---|---|
| 2014-15 | Ligi/Liginaga HEEa (27 ikasle) |

# Eskaintza azkartu/optimizatu behar diren eremuak: programazio baten proposamena (urtez urte gaurkotzekoa)

| Eremuak | Landu beharreko guneak | 2014-15eko egingarritasun inkestak : zerrenda irekia (behin betiko zerrenda: Herriko Etxeekin izanen diren kontaktuen arabera) |
|---|---|---|
| **Baiona** | Finkatu beharreko guneaibaiaren ezkerreko bazterrean<br>Finkatu beharreko gunea ibaiaren eskuineko bazterrean<br>Basusarri | Finkatu beharreko gunea : Herriko Etxearen printzipiozko adostasuna |
| **Angelu** | Finkatu beharreko gunea | Finkatu beharreko gunea |
| **Biarritz** | Victor Duruy | Victor Duruy |
| **Bokale** | Joliot-Curie ama-eskola<br>Lassalle ama-eskola<br>Lanusse ama-eskola | Eskola bat edo gehiago, Herriko Etxearen nahikariaren arabera |
| **Kanbo** | Uztaritzeko Idekia<br>Uztaritzeko Heraitze<br>Zuraide | Uztaritzeko Idekia: Herriko Etxearen printzipiozko adostasuna<br>Uztaritzeko Heraitze: Herriko Etxearen printzipiozko adostasuna<br>Zuraide: Herriko Etxearen printzipiozko adostasuna |
| **Hiriburu** | Hiriburuko Ourouspoure | |
| **Donibane Lohitzune** | Donibane Lohitzuneko Hiri Barneko eskola | Donibane Lohitzuneko Hiri Barneko eskola |
| **Bidaxune** | Bardoze<br>Bidaxune | Bardoze |
| **Donapaleu** | Larzabale, Jutxi, Bunuze eta Donaixtiko multzoa (gune bakarreko HEEren proiektua)<br>Arberatze - Arboti - Etxarri HEEa<br>Armendaritze - Mehaine<br>Iholdi | Larzabale, Jutxi, Bunuze eta Donaixtiko multzoa (gune bakarreko HEEren proiektua): Herriko Etxeen printzipiozko adostasuna |
| **Maule** | Ezpeize – Sarrikotapea HEEa<br>Bildoze HEEa<br>Garindaine<br>Gotaine | Ezpeize – Sarrikotapea HEEa: Herriko Etxearen printzipiozko adostasuna |
| **Atharratze** | Ligi – Liginaga HEEa | Ligi – Liginaga HEEa |

# Euskarazko irakaskuntzaren garapena : Lehen mailako irakaskuntza publikoa




2011az geroztik, irakaskuntza publikoko gune elebidunen idekidura apaltze azkarra, 2009 eta 2010 artean saila elebidunekin lotuak ziren frantsesezko postu erdien kentzeari lotua gehien bat.

**Proposamena :**
Idekitze berriak frantsesezko postu kentzeei ez lotzea aktatu

# Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena lehen mailako irakaskuntza giristinoan




- 5 sail elebidun ireki dira irakaskuntza giristinoan
- Irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten eskolen proportzioa, % 50etik %65era igo da

# Irakaskuntza giristinoko 1. mailako eskolen lurralde estaldura 2014an




**Proposamenak:**

- DDEC-rekilako lankidatza segitzea landu beharreko guneak definitzeko eta egingarritasun inkestak eramateko
- Oinarria: BAB, Bidaxune eta Mauleko eremuan eskaintza azkartzeko proposamena

# Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena lehen mailako Seaskako federazioan




- 7 ikastolaren ireki dira
- 2014ko eskola seartzean, 27 ikastola, horietarik 4 beste ikastola bati atxikiak

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Seaskako 1. mailako ikastolen lurralde estaldura 2014an



# Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapena lehen mailan 3 sareetan




- Azken 10 sartze hauetan, 44 sail elebidun berri ireki dira lehen mailan:
  - 32 irakaskuntza publikoan, horietarik 6 jarraipena segurtatzeko
  - 5 irakaskuntza girixtinoan
  - 7 Seaskako murgiltze irakaskuntzan
- Euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten lehen mailako eskolen proportzioa %42tik %60ra igo da

# 3 sareetako kolegioen lurralde estaldura 2014an



Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 3 sareetako kolegioetan eskaintza elebidunaren garapena

- 2004tik, kolegioetan, 7 sail elebidun ireki dira:
  - 5 irakaskuntza publikoan
  - 2 irakaskuntza giristinoan

- 39 kolegietarik 27k dute irakaskuntza elebiduna proposatzen
  - 14k  irakaskuntza publikoan
  - 10ek irakaskuntza giristinoan
  - 3k Seaskako federazioan

- Lurralde osoan, lehen eta bigarren mailaren arteko segida segurtatua da

# 3 sareetako lizeoen lurralde estaldura 2014an



# 3 sareetako lizeoetan eskaintza elebidunaren garapena (irakaskuntza orokorrean)

- 14 lizeoetarik 8k dute irakaskuntza elebiduna proposatzen
  - 3k irakaskuntza publikoan
  - 4k irakaskuntza giristinoan
  - 1ek Seaskako federazioan

- Kolegio eta lizeoen arteko segida kasik lurralde osoan segurtatua da, baina iragan urteetan zailtasunak ageri ziren 3 tokitan:
  - Maurice Ravel lizeoan, toki eskasarengatik, irakaskuntza elebidunean segitu nahi zuten ikasle guztiek ezin zuten (motibapen gutuna eskatzen zitzaien)
  - Villa Fal kolegiotik ateratzen diren ikasleek René Cassin lizeoan irakaskuntza elebidunean segitzeko zailtasunak zituzten ez baitziren onartuak
  - Irakaskuntza elebidunik ez da Xiberoko lizeoan

**Proposamenak:**

- Irakaskuntza elebiduna lizeoan segitu nahi duten BABeko ikasle guziek René Cassin lizeora joateko aukera ukan behar dutela berriz adostea
- Sohütako lizeoan sail elebidunaren irekitzeko gaurdanik lanean hastea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzakoa

**Gaur egungo egoera:**

- Eskaintzaren garapenaren abiatzea, hizkuntza politika obratzean agertzen diren beharrei erantzuteko logika batean kokatua (lehen haurtzaroaren arloan, jendeenganako zerbitzuen arloan, ...)
- Irakaskuntza teknologikoan:
  - ST2Seko bigarrena, lehena eta terminala Angeluko Santa Ana lizeoan
- Irakaskuntza profesionala:
  - ASSPeko bigarrena, lehena eta terminala Uztaritzeko San Josepe lizeo giristinoan
  - Komertzio/Salmentako bigarrena, lehena eta terminala Uztaritzeko San Josepe lizeo giristinoan
- Laborantzako irakaskakuntza:
  - SAPATeko bigarrena, lehena eta terminala, Frantsesenia laborantzako lizeo giristinoan
- 68 ikasle formakuntza elebidun horietan 2013-14ean

**Proposamenak:**

- Baionako Louis de Foix lizeoan sail elebidun berri baten irekitzearen egingarritasuna aztertzea, baita Baionako Greta zentroan ere, formakuntza elebidunak proposatu ahal izateko (Haur-artatzaile laguntzaile formakuntzan bereziki)
- Baionako Paul Bert lizeoan, ASSPeko sail elebidun baten irekitzearen egingarritasunaren berriz aztertzea

# 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera irakaskuntza publikoan




- 2013ko eskola sartzean, lehen aldikotz 5000 ikasle baino gehiago dira sail elebidunean eta irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten eskoletan gehienak dira.
- 9 urtez, 2004tik 2013ra, %61,9 emendatu dira irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak, %18,5etik %29,3ra pasatuz

# 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera irakaskuntza giristinoan




- 9 urtez, 2004tik 2013ra, %38,5 emendatu dira irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak, %23,8tik %34,9ra pasatuz

# 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera Seaskako federazioan




- 9 urtez, 2004tik 2013ra, %56,9 emendatu dira murgiltze ereduan diren ikasleen kopuruak

# 1. mailako ikasle kopuruen bilakaera sare guzietan




- Irakaskuntza elebiduneko murgiltze edo parekotasun ereduan diren ikasle kopuruak 5 973tik 9 456ra pasa dira, hots %54,9eko emendaketa 9 urtez
- Ikasle elebidunen proportzioa %24,5etik %36,6ra pasa da
- Ama-ikastolan, irakaskuntza elebiduneko murgiltze edo parekotasun ereduan diren ikasle kopuruak %30,4tik %43,6ra pasa dira

# Kolegioan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasle kopuruen bilakaera 3 sareetan




2004tik 2013ra, kolegioan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak:

- %5,9tik %10,7ra (+384 ikasle) pasa dira iraskaskuntza publikoan
- % 6,9tik %12,4ra (+283 ikasle) pasa dira irakaskuntza giristinoan
- 477 ikasletatik 644 ikasletara (+167 ikasle) Seaskako federazioan

# Lizeoan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasle kopuruen bilakaera 3 sareetan

**Lizeoko ikasle elebidunen kopuruen bilakaera, 3 sareetan (irakaskuntza orokorra)**




2004tik 2014ra, lizeoan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasleen kopuruak:

- %3,8tik %5,5ra (+61 ikasle) pasa dira iraskaskuntza publikoan
- % 2,5etik %6,4era (+88 ikasle) pasa dira irakaskuntza giristinoan
- 178 ikasletatik 195 ikasletara (+17 ikasle) pasa dira Seaskako federazioan

# Lizeoan irakaskuntza elebiduna segitzen duten ikasle kopuruen bilakaera 3 sareetan




- 2004tik 2013ra, kolegioan, irakaskuntza elebiduneko murgiltze edo parekotasun ereduan diren ikasle kopuruak %9,8tik %15,6ra emendatu dira
- 2004tik 2013ra, lizeoan, irakaskuntza elebiduneko murgiltze edo parekotasun ereduan diren ikasle kopuruak %6,6tik %9,1era emendatu dira

# 1. mailako euskarazko irakasle postu kopuruen bilakaera




- 2004tik 2013ra, 3 sareetan, euskarazko irakasle postuak 228,5etik 315era emendatu dira: + 86,5 postu (+ %38a)

# Irakasle elebidun eskasia lehen mailan

**Gaur egungo egoera:**

Eri geldialdi edo ama oporretan diren irakasle elebidunen ordezkatzeko zailtasun gero eta handiagoak dira, honako arrazoiengatik:

- irakasle elebidun gehienak emazte gazteak izaki, ama edo guraso-opor eta lanaldi partzial anitz baitira
- irakasle zenbaitek irakaskuntza elebiduna uzten baitu, beste postu batzuen hartzeko :
  - zuzendari postuak (zuzendari postu bat eta irakasle elebidun postu bat aldi berean irakasleen mugimenduan eskatzeko ezintasuna)
  - irakasle berezitu postuak
  - frantsesezko irakasle postuak

**Proposamenak:**

- Beharrezkoak diren irakasle baliabideen definitzeko, urte guziez eguneratu beharko den urte anitzeko programazioa EEPk sortzea, HNrekin hitzarturik
- Irakasle bolondresen eta euskaraz irakatsi nahi dutenen urte anitzeko formakuntza plan baten plantan jartzea
- Irakasle ordezko elebidunen eskasia delarik, noiztenkako kontratupean diren irakasle euskaldunei dei egitea, irakasle elebidunak ez ditzaten sekula frantses ordezko elebakarrek ordezka.

# Euskarazko kanpoko konkurtso publikoa (CRPE public externe langue basque) : Kandidatu, postu eta kandidatu onartuen kopuruen bilakaera




- 2007an salbu, abantxu konkurtsoko postu guztiak beteak dira
- 2007tik, anitzez apaldu da kandidatuen kopurua

# Euskara ikasteko formakuntza frantsesez irakasten duten irakasle bolondresentzat

- **Irakaskuntza giristinoan:**
  - 2012-13an, Pirinio-Atlantikoetako 1. mailako irakasle guzien kontsulta → 8 irakasle bolondres begiztatuak
  - 6 irakasle formatu dira, AEK-k antolatu ikastaro trinkoen bidez

- **Irakaskuntza publikooan:**
  - 2013-14an, Pirinio-Atlantikoetako 1. mailako irakasle guzien kontsulta → 18 irakasle bolondres begiztatuak eta departamendutik kanpoko beste 5
  - AEK-k irakasle horien mailaketa egin du
  - formakuntza planak muntatzen ari

**Proposition :**

- Formakuntza planak martxan ezartzea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 2. atala: euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa kualitatiboa

- 2008ko urtarrilean adostua
- 7 norabideren bidez jokatu jarduera programa:

| | |
|---|---|
| Lehen eta 2. maila sare guzietan | Lehen norabidea: eskolan euskararen ikaskuntza dispositiboa egituratzea, maila eta sare guzietan lortu beharreko gaitasun maila zehaztuz eta ebaluazio/egiaztapen prozedurak abian jarriz |
| Lehen maila sare guzietan | 2. norabidea: lehen mailako irakasleen jatorrizko formakuntza eta formakuntza jarraikia egokitzea, sare guzietan irakaskuntza elebidunaren berezitasunei lotuak zaizkien beharrak hobeki kontuan hartzeko |
| Lehen maila parekotasun sisteman | 3. norabidea: lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzen antolaketarako orientazio dokumentu bat burutzea, bai oinarri komuneko ezagutza eta gaitasunen eskuratzeko beharra, bai irakaskuntza elebidunaren berezitasunak kontuan hartuko dituena. |
| | 4. norabidea: eskola elebidunetako irakaskuntza baliabideen kentze eta emate erabakien prestatzeko eginmolde berri baten martxan ezartzea, beharren kalkulu teorikoa eta irakaskuntza praktikoaren antolaketa uztartzen dituena. |
| | 5. norabidea: lehen mailako sail elebidunetan euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatzeko xedea duten esperimentazio pedagogikoak ahalbidetzea eta laguntzea |
| Lehen eta 2. maila murgiltzean | 6. norabidea: Hezkunde Nazionala eta Seaskaren arteko hitzarmena burutzea, lehen mailako irakaskuntza baliabideen ematea, bigarren mailako oren dotazioen finkapena, ikastetxe berrien irekitzeko modalitateak eta hizkuntza gaitasunen ebaluazioa kudeatzeko tresna partekatuak zehazten dituena |
| 2. maila parekotasun sisteman | 7. norabidea: kolegioan eta lizeoan irakaskuntza elebiduna azkartzeko plan bat martxan ezartzea, euskaraz emanak diren irakaskuntza orenak emendatuz |

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

## **Lehen norabidea:** lortu beharreko gaitasun maila zehaztea eta ebaluazio/egiaztapen prozedurak abian jartzea maila guzietan

**Obratua dena:**

- Ebaluazio prozedurak:
  - 2010az geroztik, sare publiko eta giristinoko CM2ko ikasle guzien euskarazko mailaren ebaluatzea (A2 maila). 2012-13ko emaitzen analisiak ikasleka 12,6/20eko batazbestekoa erakusten du
  - 2013-14an, 3 sareetako 5.eko ikasleen euskarazko mailaren ebaluatzea (B1 maila).
- **Ibilbide elebidunean edo murgiltze ibilbidean jarraipen agiria emaitearen anarteko dispositiboa**: 2013an eta 2014an, ibilbide elebidunean edo murgiltze ibilbidean jarraipen agiria ematearen anarteko dispositiboa plantan jartzea, 2012 eta 2013an Baxoa, CAPa edo BEPa lortu zuten ikasle elebidun guzientzat.

**Obratzeko dena:**

- Kolegioan eta lizeoan lortu beharreko gaitasunak eta dagozkien ebaluazio prozedurak zehaztea eta baieztatzea
- Baxoko diploma agirian « frantsesa-euskara sail elebiduna » aipamena gehitzea, nazioarteko eta europar sailentzat egiten den bezala

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

**2. norabidea**: lehen mailako irakasleen jatorrizko formakuntza dispositiboa irakaskuntza elebidunaren berezitasunei egokitzea

**Obratua dena:**

Irakaskuntza elebidunaren berezitasuneak kontuan hartzea, honako kuadroan :

- eskoletako zuzendari izendatu berrien formakuntzan
- formakuntza jarraikian (ikastaldi, animazio pedagogiko, CDDPren hizkuntzen eguna)

Departamenduko formakuntza planean aurkeztu ikastaldi guziak euskarazko irakasleei eta irakasle euskaldunei eskuragarriak zaizkie. Formakuntzan diren bitartean, irakasle ikastunek ordezkatzen dituzte.

**Proposamena:**

- Etorkizuneko irakasleen jatorrizko formakuntza maketan, euskarazko irakaskuntza formakuntza integratzea  (Paueko ESPEko zuzendariarekin elkarretaratzea azaroaren 20an aurreikusia)

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 3. norabidea: lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzen antolaketarako norabide dokumentua, eskolei eta beste publikoei zuzendua (hautetsi, familia...)

**Obratua dena:**

- Lehen mailako ikastetxe elebidunen irakaspenen antolaketarako norabide dokumentu baten ekoizpena, eskolei zuzendua:
  - sail elebidun publiko eta giristinoko arduradun pedagogikoek sortu dute
  - irakaspenak bi hizkuntzen artean banatzea proposatzen du
  - eskola publiko eta giristino guzietan hedatua da

- « Publiko zabalarentzako » dokumentuaren ekoizpena, hautetsiei eta burasoei zuzendua, EEPk obratua eta irakaskuntza elebidunaren antolaketa printzipioak pedagogikoki deskribatzen dituena

**Proposamena:**

- Eskolako denboraren antolaketa berriaren kontuan hartzeko, norabide dokumentuaren egokitzea
- Eskolako denboraren antolaketa berriaren kontuan hartzeko, « Publiko zabalarentzako» dokumentuaren egokitzea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# 4. norabidea: parekotasun sistema duten eskola elebidunetako irakaskuntza baliabideen kentze eta emate erabakien prestatzeko eginmolde berri baten martxan ezartzea

**Obratua dena:**

- 2. atalean adostu den modu operatiboa : eskola elebidunetan postu kentze eta emate erabakien prestatzea bi ikusmoldetan oinarriturik:
  - eskola elebidun guzientzat euskarazko eta frantsesezko beharrezkoak diren irakaskuntza postuen kalkulu teorikoa, taldeen osaketarako muga ezberdinak jarriz : ikasle elebidunentzat, 25 ama-eskolan eta 22 lehen mailan; ikasle elebakarrentzat, 30 eta 25
  - lehen emaitza horretan oinarrituz, kasuan kasuko azterketa, antolaketa pedagogikoa behar bezala plantan ezartzen ahal dela segurtatuz

- Molde operatiboaren plantan jartzea :
  - orokorrean aplikatua den metodoa
  - Kopuru mugagarriak usu gaindituak
  - erabaki baino lehen EEP/HN arteko kontzertazio eskasa
  - EEPko Lehendakariak DASENari zuzendu notaren bidez eskola kartari dagozkion neurriak jakinarazten dizkio

**Proposamena :**

- Eskola kartako neurri xedeen hitzartze garaia adostea

**5. norabidea:** lehen mailako eskoletan euskarazko irakaskuntza oren kopuruaren emendatzeko xedea duten esperimentazio pedagogikoak ahalbidetzea eta laguntzea

**Obratua dena:**

- Irakaskuntza publikoan: 5 esperimentazio bidean
  - Donibane Garazi eta Azkaine : ama-eskolako 3 urteetan irakaskutza denboraren hiru laurdenak euskaraz eta laurden bat frantsesez proposatzen dituen esperimentazioa
  - Biarritz Alsace eta Getaria : ama-eskolako lehen bi urteetan irakaskuntza denbora osoki euskaraz proposatzen duen esperimentazioa
  - Larresoro : ama-eskolako lehen hiru urteetan irakaskuntza denbora osoki euskaraz proposatzen duen esperimentazioa

- Irakaskuntza giristinoan: 15 esperimentazio bidean, ama-eskolako lehen bi edo hiru urteetan irakaskuntza denbora osoki euskaraz proposatzen dutenak

- Esperimentazioen ebaluazioa: ama-eskolako euskarazko ebaluatze protokoloa 2012ko ekainean aplikatu zen Donibane Garazin eta Azkainen esperimentazioan ziren eskoletan eta Donapaleun eta Senperen parekotasun sisteman ziren eskoletan. Ebaluazioak erakusten du **lorpen ezberdintasun adierazgarria**, batez ere ahozko hizkuntzaren idatzizko ulertze gaietan eta ahozko gaietan.

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

## **5. norabidea:** lehen mailako eskoletan euskarazko irakaskuntza oren kopuruaren emendatzeko xedea duten esperimentazio pedagogikoak ahalbidetzea eta laguntzea

**Proposamena:**

- EEPk (HNrekin partaidetzan), sail elebidunak idekitzeko egingarritasun inkesten ardura duen bezala, eskola publikoetako irakasle taldeen animatze funtzioa EEPri ematea, HNko ordezkariekin partaidetzan:
  - protokoloa aurkeztea
  - irakasle taldeei euskarazko oren emendaketaren onurak jakinaraztea
  - esperimentazio baten plantan emaitearen modalitateak aztertzea irakaskuntza taldeekin

Horren egiteko, aitzinetik egin behar direnak :

- EEP/HN partaidetzaren modalitate praktikoak hitzartzea
- eskaeren egutegia malgutzea (gaur egun eskaera txostena osaturik azaroa hondarreko itzultzekoa da)
- informazio bilkurak proposatzen ahal diren ikastetxeen zerrenda HNrekin urtero adostea (sail elebidun berrien idekitzeko egiten den bezala)

**6. norabidea** : Hezkunde Nazionala eta Seaskaren arteko hitzarmena burutzea, lehen mailako irakaskuntza baliabideen ematea, bigarren mailako oren dotazioen finkapena, ikastetxe berrien irekitzeko modalitateak eta hizkuntza gaitasunen ebaluazioa kudeatzeko tresna partekatuak zehazten dituena

**Obratua dena:**

- 2009ko ekainean: HN/Seaska/EEPren arteko lehen hitzarmenaren izenpetzea
  - Ikastoletan obratzen den modelo pedagogikoaren ezagutza
  - Hizkuntza politikaren obratzean Seaskaren paper estrategikoaren ezagutza
  - 3 urtez 11 posturen hornitzea
  - Ikastola berrien irekitzearen adostea eta irekitze dosieren pieza osagaien zehaztapena

- 2012ko azaroan: HN/Seaska/EEPren arteko bigarren hitzarmenaren izenpetzea
  - 2009an finkatu kuadro pedagogikoaren iraunkortzea eta indarrean emaitea
  - Lehen mailako postu ematearen azterketa eta kalkulu metodoaren adostea
  - Ikastola berrien irekidura proiektuen adostea (Beskoitze, Ziburu, Biarritzeko lizeoa)

**Abiatzeko dena:**

- Hitzarmen berriaren prestatzeko lanak abiaraztea (bidean den hitzarmenanaren bukaera aurreikusirik, 2015eko azaroaren 21ean)

**7. norabidea :** kolegioan eta lizeoan irakaskuntza elebiduna azkartzeko plan bat martxan ezartzea, euskaraz emanak diren irakaskuntza orenak emendatuz

**Obratua dena:**

- Euskaraz beren gaia irakatsi nahi duten irakasle euskaldunak begiztatu eta formatzea:
  - Kolegio eta lizeo publiko eta giristinoen kontsulta 2010ean → hizkuntza ez den gai bat (DNL) euskaraz irakasteko gai diren 13 irakasle begiztatuak
  - irakasle bolondresen begiztatzeko, 2. mailako euskara ikuskariak alerta dispositibo iraunkorra plantan ezartzea
  - Euskaraz DNL baten irakasteko gai diren irakasle bolondres berrientzat, 2. mailako euskara ikuskariak 4 eguneko formakuntza moduloak antolatzea

- Euskarazko DNL berrien irakaskuntza :
  - Baionako Marracq kolegioan: 2011n teknologia eta matematiken irakaskuntza euskaraz abiatzea. **Parekotasun sistema lortu duen kolegio bakarra**
  - Hendaiako Irandatz kolegioan: 2011n fisika eta latinaren irakaskuntza euskaraz abiatzea
  - Donibane Lohizuneko Chantaco Kolegioan: 2012an teknologiaren irakaskuntza euskaraz abiatzea
  - Kanboko Errobi kolegioan: 2013an matematiken irakaskuntza euskaraz abiatzea, postuaren « profilatzearekin »
  - Donibane Garaziko Citadelle kolegioan: 2013an musikaren irakaskuntza euskaraz abiatzea
  - Mauleko Argia kolegioan : 2013an fisikaren irakaskuntza euskaraz abiatzea

- Seaskako saretik datozen terminaleko ikasleentzat Baxoko matematika azterketa euskaraz egiteko parada

**7. norabidea :** kolegioan eta lizeoan irakaskuntza elebiduna azkartzeko plan bat martxan ezartzea, euskaraz emanak diren irakaskuntza orenak emendatuz

**Proposamenak:**

- Euskarazko irakaskuntzen garapenaren optimizatzea:
  - postuen profilatze sistematikoa
  - euskaraz irakatsitako DNL berri bat abiatzeko, ikasgela osoa izatearen baldintza malgutzea
- Baxoko eta brebeteko azterketen euskaraz egiteko aukeren zabaltzea
  - matematikentzat plantan jarria den dispositiboaren ebaluatzea
  - esperimentazioa Lurra eta Bizitzaren Zientzietara hedatzea
  - sail elebidunetako ikasleei hedatzea
- Euskara lehen hizkuntza (LV1) gisa aurkeztearen aukera zabaltzea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Eskola ibilbidearen jarraipen tasak hobetzeko lana

**Obratua dena:**

- 2013an, 6.eko ikasle eta buraso guzien kontsulta, 6.ean sartzean euskara-frantsesa irakaskuntza elebiduna segitu edo uztearen arrazoiak jakiteko (sare publiko eta giristinoan 3 ikasletarik 1ek uzten du, Seaskan 10etarik 1ek)
    - Uztearen hautua egiten duten ikasleek aipatutako arrazoin nagusiak :
        - euskara zailegi iduritzen baitzaie
        - euskarazko Historia/Geografia irakaskuntzak iziarazten baititu
        - irakaskuntza elebidunak kolegioan lan gehiago eskatzen baitie
    - Burasoek aipatu arrazoi nagusiak :
        - haurraren hautuaren kontuan hartzea
        - etxeko lanetan haurraren laguntzeko ezintasuna euskara ez baitakite

      Neurri apalago batean :
        - euskara opzio gisa segitzea aski dela iduritzen baitzie
        - elebitasuna zailtasun gehiagoren sortzaile bezala hautemana (oren gehiago, etxeko lan gehiago…) baita
- Irakasleekin antolatu bilkurak, kontsulta horren emaitzak partekatzeko, profesionalen proposamenak biltzeko eta aztertzeko

**Proposamenak:**

- Ama-eskoletan esperimentazioak garatzeko politika abiatzea, lehen mailan hizkuntzaren irakaskuntzari jauzi kualitatiboa eginarazteko
- CM1 eta CM2ko ikasle eta burasoei zuzendu informazio/sentsibilizazio bilkuren antolatzea, sail elebiduneko kolegioko ikasle eta familiekin bilduz
- Kolegioa eta bere eremuko eskolen artean, animazioak antolatzea (adb : CM1 edo CM2ko H/G orenak kolegioko irakasleak emanik)
- Irakaskuntza elebidunaren hautua opzio edo sail bereziekin bateragarri bilakaraztea (bi hizkuntza, kirola…)

# Irakaskuntza elebidunean sartze tasak hobetzea

**Obratua dena:**

- Publiko zabalari zuzendu konferentzia zikloen antolatzea Hezkunde Nazionaleko, irakaskuntza giristinoko, Seaska federazioko, ikasleen buraso elkarteetako eta kolektibitateetako arduradunekin (2007 eta 2013an)

- Tokiko elkargoekin partaidetzan, haurra eskolan hasteko adinean duten burasoei opari bat igortzea, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren interesa aurkezten duen informazio eta sentsibilizazio liburuxka batek, euskarazko liburu batek eta KB batek osaturik




**Proposamena:**

- 2 sentsibilizazio operazioak arraberritzea

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Ikastetxeen proiektu deialdia (IPD)

- Irakaskuntza elebiduna proposatzen duten lehen mailako eta bigarren mailako ikastetxe guziei zuzendua
- Hiru sareetako ikastetxeei aldi berean igorria emailez
- 60.000 €ko fondoa
- Helburuak:
  - Euskararen erabilera sustatu
  - Euskararen ikasketa erabileraren bidez sendotzea
  - Ikasleen, burasoen eta irakasleen motibazioa sustatu
- EEPko zerbitzuek, Pirinio Atlantikoetako HNko zerbitzuek eta irakaskuntzako 3 sareetako ordezkariek osatzen duten batzorde teknikoak aztertzen ditu proiektuak
- 2013-14 proiektu deialdiko elementu nagusiak :
  - 109etarik 110 atxikiak, 4211 ikasle hunkiak
  - 23 irakaskuntza publikoan (%21a), 592 ikasle hunkiak (%14a)
  - 38 irakaskuntza giristinoan (%35a), 886 ikasle hunkituak (%21a)
  - 48 Seaska sareko irakaskuntza imertsiboan (%44a), 2730 ikasle hunkiak (%65a)

# Hizkuntza politikaren kuadroa

- Irakaskuntzan: HN/KN 64
  - Hitzarmena kolektibitate bakar batekin, nahiz eta kolektibitate guzien eskumenak barne izan
  - HN/KN jarraipen batzordea
  - EEP : obratze egitura

- Politika orokorrean:
  - EEPk hizkuntza politika definitzen eta obratzen du kolektibitateen kondu
  - Irakaskuntza : hizkuntza politika proiektuaren 12 erronka estrategikoetarik bat
  - Irakaskuntza: hizkuntzaren trasmisioaren 3 erronketarik bat
  - EEPk ez du irakaskuntzan beste alorretan duen papera




- Irakurgarritasun eskasa
- Koherentzia eskasa

**Proposamena:**

- Irakaskuntza sailari dagokion hizkuntza politika kuadroa, hizkuntza politika kuadro orokorrarekin koherentzian jartzea HN-EEP hitzarmen bat sortuz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzari dagokionez hizkuntza politikaren obratze modalitateak zehaztuko dituena